

**Enuntziatua**

ABCDE barra, A eta B puntuetan bi errotulen bidez eutsita dago, AE ardatzaren inguruan biratzera behartuta dagoelarik. Barrak E puntutik begiratuta erloju orratzen norantzan biratzen du, abiadura angeluarra gero eta txikiagoa izanik eta  $\omega_{AE} = 12 \text{ rad/s}$  eta  $\alpha_{AE} = 60 \text{ rad/s}^2$  direlarik. CD zatiaren gainean 200 mm –tako diametroa duen diskoak biratzen du  $\omega_O = 50 \text{ rad/s}$  eta  $\alpha_O = 10 \text{ rad/s}^2$  izanik, biak erloju orratzen norantzan D puntutik begiratu. Marraztutako aldiunean, diskoko F puntuko abiadura eta azelerazioa kalkulatu.

